

EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA.

Lau Haizetara Elkartea

Joan den urteko azkeneko hiruhilabetekoan, hau da, urritik abendura bitartean, Lau Haizetara Euskaldunon Elkarreak ikastaro batzuk eman zituen "Euskararen Historia Soziala" izenpean. Bertara hurbildu ginenok Mikel Ugalde izan genuen irakasle, edota gidari. Izan ere, denok izan baikinena partehartzaile euskararen egoera aztertzeko garaian.

Ikastaroaren bukaeran ondorio eta balorapen batzku egin ziren, bai ikastaroaren inguruan baita bertan jorratu ziren gaien inguruan ere. Ikastaro honetara hurbildu ez zirenei ondorio hauetan berri ematea interesgarria zelakoan, Oarso aldizkari honen publikatzea erabaki du Lau Haizetarak.

Ikastaro honetan erromatar garaietatik hasi eta gaur arte euskararen inguruan mugitu diren agenteak eta honek pairatu dituen hainbat egoera izan ziren aztergai, besteak beste. Hona hemen gehiago luzatu gabe, bertako ondorioak:

Euskararen iraganez, orainaz eta geroaz

1. Historian zehar hizkuntzak jaio, hazi ta horietariko asko desagertu egin dira. Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoa batek, euskarak, era harrigarrian gaurdaino bizirik iraun duen arren, ezin daiteke bere etorkizuna ziurtaturik dagoenik esan. Gurea baino sendoagoak ziren hizkuntzak, bizi-baldintza hobetan aurkitzen zirenak, galduz joan baitziren kondairan zehar. Gogoan izateko kontua da Euskal Herria lurraldez ttipia dela eta jende kopuruari dagokionez mugatua, azken mendeotan Frantzia eta Espainia bezalako estadien mendean iraun duela euskarak.

2. Hizkuntzaren historia gizartearen gertaturikoaren oihartzun izatez gain, gizartearen beraren kondaira dela esan daiteke. Hitzuna eta gizartea dira hizkuntzaren euskarri eta gizartearen baitan dago, besteak beste, hizkuntzaren etorkizuna.

3. Euskal Herriaren historiaren unerik garrantzitsuetan: mendebaleko kulturaren txertatzerakoan, kristau erakundeak nagusitu zirenean, aginte zibilaren antolakuntzan, ez zitzaion behar hainbateko arretarik erakutsi, are gehiago, bizkar eman eta inoiz kupidarik gabe erasotu ere bai.

4. Euskararen etorkizuna euskaldunon eskutan, euskaldun bakoitzaren baitan, dago inongo dudarik gabe. Euskaldunon soil eta arrunt horrek eutsi dio gaurdaino hizkuntzari eta gero-

ak ere bide horretatik jo beharko du. Bidezkoa da, hortaz, herritarren borondateari bideak zabaldu eta bere helburuak erdiesten laguntzea.

5. Gaur egun, ordea, euskaldunon artean badago erantzukizuna besteren eskutan uzteko joera. Euskaltzaindiak, Hizkuntz eta Politika idazkaritzek, euskalduntze-alfabetatze mugimenduek, ikastolek, euskaratik bizi diren hainbat lagunek, euskara ikasteko zoria izan duten haurrek..., labur esanda, bestek, euskararena konponduko duten ustea zabalduxeago dago gure artean.



Euskararen Historia Soziala ikastaroa. 95-96.

6. Norbere erantzukizunari bizkar emanez erabakiak besteren esperantzan utzi dituztenen jarrerak kalte izugarria egin diezaioke euskarari. Euskaldun bakoitzak tokian tokiko jardueretan euskararen bizi-iraupena ziurtarazteari ekin behar dio: familian, lagun artean, eskolan, lantegian, elkarrean, fede-bizitzan, sindikatuetan, alderdi politikoetan... euskara normaltasunez erabil dezaten. Ezinbestekoak ditu euskarak euskalgintzaren hazia alor eta eremu guztietan ereingo duten euskaltzaleak.

7. Kezkagarria da, aldi berean, integrazioaren eta sasi-elebitasunaren izenean oraindik bere normalkuntza lortu ez duen euskara baztertzeko erakusten duten jarrera. Gure lurraldean elebarrak ere badirenez, bi komunitateen zatiketarako kalterako izan daitezkeenez, integrazioarako deia egiten zaigu. Baina elebidunoi eskatzen zaiguna ez zaie elebarrak neurri berean eskatzen... Euskararen normalkuntzaren aldeko jarrera erakutsi beharko lukete besteak ere.

8. Gizartearen zenbat era eragin handiago izan, orduan da nabarmenagoa da euskararekiko erantzukizuna. Indarra eta boterea

dutenek, agintariak, erakundeetako kargudunak, enpresariak, herritar soilak baino areago saiatu behar dute euskararen aldeko apustuan, gurasoak seme-alabek baino arduraz gehiago erakutsi behar duen bezalaxe.

9. Azken urteotako historiak, eta beste herrialdeetan gertatuak, hizkuntzaren geroa herritarren borondatearen baitan dagoela erakusten du. Herritarren aldetik euskarazko zerbitzuen eskea, demanda, sortzeari garrantzi handia ematen zaio. Euskaraz eskatzen den neurrian bakarrik egin dezake aurrera zerbitzuen munduaren euskalduntzea. Irakaskuntzan, esaterako, erabakigarria izan da gurasoen euskarazko irakaskuntzaren

demanda, gurasoek horrela nahi izan dutelako egin dute aurrera B eta D irakas-ereduek.

10. Garrantzi handiko pausoa eman du euskarak batasunaren aldeko apustua irabaztearekin, ezinbestekoa baitzen euskararen etorkizunerako. Euskara batua sendotzearekin batera, ordea, euskalkien ezagutza areagotu beharra dago, euskalkien isuriek euskara aberastu, tokian tokiko esamoldeei eutsi. Izan ere aldarrikatu beharreko kontua da euskararen batasuna, oraingoz, idatzizkoa dela eta, ahozkoari dagokionez herri eta eskualde desberdinetako hizkerak mantendu behar direla. Ahozko hizkuntz batasuna mamitzen bada jakineko alor zehatzetan, komunikabideetan, kasu, erabiltzeko, izango da.

11. Ahozkotasuna aipatu denez, azpimarratu beharrekoa da bere lehentasun eta erabateko garrantzia. Ahoz ikasten du haurrak hizkuntza, ahoz erabiltzen da gehienbat hizkuntza, ahoz-ahoz iragan ohi dira tradizioak belaunaldi batetik bestera, ahozko erabileraren eskutik leuntzen da hizkuntza erreka urak harria bezala. Eskertzekoa da Zavalak, Lekuonatarrek, bertso-eskola eta elkarteek, hainbat bertsolarik ahozkotasunaren ondarea gureganatzen egin duten ahalegina.

12. Hasierako lehen puntura itzuliz, aipatutako puntuak hausnartu eta gero, euskararen etorkizuna ikuskizun dela esan behar da. Euskara aurrera ateratzeko erabakiak, asmoak, planak, egitasmoak gero eta gehiago behar dira, hots, erakunde eta elkarten euskarari buruzko politika, bere adiera zabalean hartuz, landu behar da. Beste era batera planteatuta, pertsona eta erakunde orok honako galdera hau egin beharko lioke bere buruari: *zer da euskararen alde egin dezakedana, zer da egin behar dudana?* Izan ere, ez baita hizkuntzarik gabeko ekintzarik, euskaraz egiten ez den oro erdaraz burutuko baita.

Oro har honako oinarritzko irizpideen arabera erabaki beharko litzateke euskararen aldeko lana:

- Hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko euskaldunon artean euskaraz egitea eta ondorengoei erakustea da biderik egokiena.

- Garrantzi handia du familian, lagunartean, jolas eta solas giroan, gizarte hurbilean euskaraz egiteak.

- Irakaskuntzaren eragina begibistakoa bada ere, garbi dago ezagutza garatzen duela baina ez dela, horrenbestez, hizkuntz-erabilera ohitura aldatzen. Horregatik arreta berezia eskaini behar zaio eskolaz kanpoko ekintza eta jarduerari euskara erabili dezaten. Instituzioek, bestalde, aurrekontuetan arreta handiago izan beharko lukete euskararekiko aurrekontuak erabakitzerakoan eta herriko talde eta mugimenduekin elkarlanerako ahalegin handiago bat egin.

- Irakaskuntzan egin den ahalegina gutxietsi gabe, bistan da oraindik zer egin handia dagoela, batez ere Lanbide Hezkuntzan eta goi mailako ikasketetan. Hori guztia, gainera, gaur egun lortutako mailatik behera egin dezakeela ahaztu gabe, zaila izango baita oso, lan munduak erdaraz jarraitzen duen neurrian hainbat ikasketa euskaraz bideratzen.

- Lehen esandakoaren ildotik, enpresariak txertatu beharra daukate hizkuntzaren erabileraren kontua kalitate totalaren eskakizunen zerrendan, hots, herri eta eskualde euskaldunetako hainbat lantegi euskaldundu beharra planteatu behar dute eta herri administratzioetatik bidezkoak diren laguntzak jaso.

- Hizkuntz politikak hizkuntz plangintza eskatzen du, eta ekintzak ebaluatu beharra aldarrikatzen du plangintzak. Kontuan izatekoa, da ongi erabilitako baliabide xumeekin etekin hobea lor daitekeela zenbaitetako hainbat makroinbersioekin baino.

Hausnarketa honetan, jakin badakigu, gaia ez dela agortzen, zer aztertu eta sakondua badagoela. Ibili-ibilian erakundeek aintzat har ditzaketen oinarritzko irizpideak baino ez dira azaltzen beti ere euskararen historiak erakusten digunaren arabera.